



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Maiatzak 12: Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna Hirugarren Sektorre Sozialak elkartasun kolektiboa aldarrikatu du gizarte-erronkei aurre egiteko

- Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legearen zazpigarren urteurrena ospatu du, Iñigo Urkullu lehendakaria eta hainbat erakunde sozial bildu dituen ekitaldian.
- Elkarreak Thomas Holdbrook-i eman dio aurtengo Sareen Saria, Asumdwe Nkabon Euskadiko ghanarren elkarrearen sortzaileari.

Donostia, 2023ko maiatzak 12. Gaur, maiatzaren 12an, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna da. Hori ospatzeko, gaur [Sareen Sareak](#), sektoreko sareak eta erakundeak batzen dituen elkarreak, antolatutako ekitaldia egin du Donostiako Carlos Santamaría zentroan. Ekimenak 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea indarrean sartu izana oroitzen du. Lege horrek Euskadiko hirugarren sektorre sozialean inflexio-puntua markatu zuen.

“**Aldaketaren hazia inspiratuz**” lelopean, Sareen Sareak eraldaketa sozialaren alde lanean jarraitzeko beharra aldarrikatu du, Euskadi anitzagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikiz. Ekitaldian, gizartearen eraldaketarako nahiaz betetako zuhaitz bat aurkeztu da, joan den apirilean Gasteizen ospatutako jarduera kolektibo batean herritarrekin batera egindakoa. Lehendakariak eta ekitaldian parte hartu duten gainerako pertsonak zuhaitzaren adarretan zintzilikatu ahal izan dituzte beren mezuak, aldaketa inspiratzeko asmoarekin bat eginez. “Mezu horiek elkartasun kolektiboa eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egingo dien aldaketa sozialaren aldeko konpromiso irmoa adierazten dute”, Sareen Saretik azaldu dute.

Ekitaldiaren hasieran, **Borja Doval Sareen Sareko presidentea** gizarteak hainbat erronkari egin behar diela aurre gogorarazi du ongietorri-hitzaldian, hala nola **trantsizio demografikoari, zaintza-ereduaren krisiari eta eredu berri baterantz aurrera egiteko beharrari, desberdintasun soziala areagotzeari edo trantsizio digitalari**. “Aldaketa-testuinguru batean gaude. Eta Hirugarren Sektorre Sozialeko sare eta erakundeek aldaketaren hazia inspiratzen jarraitu nahi dugu, elkartasunean eta eraldaketa sozialera bideratuta, inor atzean gera ez dadin”, adierazi du Dovalek. Sareen Sareko lehendakariak nabarmendu duenez, erronka horiek gizarte osoaren inplikazioa behar dute, herriz herri eta lurraldez lurralde, eta, ondorioz, antolatutako gizarte-ekimenaren lankidetzak, lankidetzak eta parte-hartze demokratikoa, gobernantzaren ikuspegitik.

Ekitaldian **Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartu du** eta erakundeei haien lana eskertu die, hirugarren sektorre sozialaren funtsezko izaera nabarmenduz. “Hirugarren Sektorre Sozialaren Eguna aukera paregabea da gizarte-erakundeek gure



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



herrian betetzen duzuen zeregin erabakigarriari buruz hausnartzeko eta Euskadi leku hobea izaten lagundu duten pertsona eta erakundeei aitortza egiteko”.

Sareen Saria

Hirugarren Sektorre Sozialaren eguna **Euskadi solidarioagoa, kohesionatuagoa eta sozialki inklusiboagoa eraikitzeke konpromisoa izan duten eta horretarako lan egin duten pertsonen ibilbidea aitortzeke unea ere bada**. Aitortza hori egiteke, Sareen Sareak **Thomas Holdbrook**-i eman dio aurtengo Sareen Saria, Asumdwe Nkabon Euskadiko ghanarren elkartearen sortzaileari hain zuzen. Sareen Sareke Zuzendaritza Batzordeak saria ematea erabaki du, hainbat kolektiboren gizarteratzearen arloan boluntario eta profesional gisa egindako hiru hamarkadatik gorako ibilbideagatik.

Gaur egun, Euskadiko ghanar komunitatearen bihotza da Thomas Holdbrook, erakunde desberdinekin lankidetzan arituz, ghanatarren inklusioa sustatuz eta giza eskubideen aitortzan, aniztasunean eta justizian oinarritutako gizartea eraikiz.

Eraldaketa digitala

Ekitaldia amaitzeko, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Eraldaketa Sozialari buruzko mahai-ingurua egin da. **Lucía Merinok** (Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiaren koordinatzailea) moderatutako solasaldian, hainbat gizarterakunderen esperientziak entzun ahal izan dira. Zehazki, [Nagusilan](#)eko **Enara Solabarriak**, [Bizitegi](#)ko **Pablo Ruizek** eta [IRSEARABA](#)ko **Lorenzo Martínezek** eraldaketa digitalaren inguruan duten ikuspegia eta esperientziak azaldu dituzte.

Sareen Sareak nabarmendu du beharrezkoa dela eraldaketa digitalaren eraikuntza sozialari ekitea, pertsonak eta haien beharrak barnean hartuta. “Eraldaketa digital arduratsua lortzeko helburuarekin, sarean lan egin behar dugu, kolektiboki, teknologia partekatu eta etiko batekin, betiere eraldaketa sozialera bideratuta”.

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala eta Sareen Sarea

Hirugarren Sektorre Soziala **irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute** eta helburua da gizarteratzea eta zaugarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea.

Egun, **4.000 erakunde baino gehiagok osatzen dute, 40.000 lanpostu sortzen ditu, 160.000 boluntariorik gora daude** eta Euskadiko % 2,4ko BPGren¹ baliokidea den bolumena kudeatzen du.

¹2021eko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia*. 2021eko abendua.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi



Sareen Sarea elkartea 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 17 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiek hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, haurrak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, ekonomia soziala, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.

“Gizartea bidezkoagoa eta solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko egiten dugu lan. Gizarte bidezkoagoa lortzeko proposamenak eta aukerak eraiki nahi ditugu elkarlanean”, azaldu dute Sareen Saretik.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Jon Txarroalde Antolín

688 729 340

komunikazioa@sareensarea.eu